

# UZTARO: Zuzenbidea euskaraz, teoriatik praktikara

**Andres Urrutia**

**Deustuko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateko irakaslea. Notarioa**

## **1. Nondik etorri**

UZTARO aldizkariak 100. zenbakia eta mende laurdena bete ditu. Data esanguratsua, kopuru adierazgarria. Datu bibliometriko soiletan ibiliz gero, erabat azpimarragarria, euskaraz argitaratutako aldizkaria baita UZTARO. Alegia, giza eta gizarte-zientzietan akademiako izaera eta euskara uztartzen eta estekatzen dituen, unibertsitate ere gertu eta hurbil, Udako Euskal Unibertsitatean baititu sorleku eta bizitokia.

Unibertsitate-alorrean ere, askotarikoak dira sailak eta eremuak eta UZTARO aldizkariak hasiera-hasieratik hautazkoak eta hautukoak izan ditu giza eta gizarte-zientziak, ongi ulertua horiek ere, teknika hutsaren gainetik, euren lekua eta esparrua merezi dutela.

Zer, ordea, Zuzenbideari dagokionez? Egia esan, Zuzenbidearen barnean badira zantzu bereziak eta bereziak. Sistema juridiko jakin bati lotua agertzen da beti Zuzenbidea, sistema juridiko hori, European behinik behin, estatu jakin batekoa izan dela eskuarki. Horrek baldintzatzen eta moldatzen du. Egun, haatik, Europa moduko errealitate berriak etorri datoz eta zer esanik ez, nazioarteko Zuzenbidean ere biziberritze oso batean bizi da.

Aurrekoei gehi bekie, inolako lotsarik gabe, euskararen eskualde geografikoan bizirik iraun duten osterantzeko Zuzenbide propioak, Nafarroan nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan, Zuzenbide pribatuari dagokionez.

Nolanahi ere, XIX. mendean Espainia eta Frantziako estatuetan liberalismoak ekarritako antolakuntza juridikoari atxikia agertu da Zuzenbidea, estatuko hizkuntza zein eta horiei hertsiki lotua, banaezinak balira bezalaxe. Euskararen eremuan eta ahozko erabilera bazter utzita, idatzizko testuetan euskara ments, hitz juridiko batzuk gorabehera.

Hartara, ikuspegi honetatik aldendu da euskara azken aldiotan, batik bat lege munduan, hiru faktore desberdinetan oinarri hartuta: lehena, Zuzenbidea sortzeko eta aplikatzeko ahalmenak (ez osoak) eskuratu baitituzte Espainiako estatuaren barruan euskararen ofizialtasuna aitortu duten bi errealtate juridiko-administratibo, alegia, Nafarroako Komunitateak eta Euskal Autonomia Erkidegoak; bigarrena, aipatu euskararen ofizialtasuna (osoa zein mugatua), hots, Zuzenbidearen espresabidea izateko bidea ziurtatu zaio euskarari, partez bada ere, eta, hirugarrena, gizartearen barruan areagotu den gogoia eta asmoa, gizarte horren elkarbizitza arautzen duen antolakuntza juridikoa ere euskaraz gerta dadin.

Esanahi handiko iraulia, edozein modutan ere, teoriatik praktikara eraman duena Zuzenbidearen esparrua, hizkuntzaren eremutik eta geroko errealtateak ahalbidetu dituena, neurri handi batean. Nondik etorri, nora joan, biak ahala biak aintzat hartu eta garatzeko modukoak baitira UZTARO aldizkariarentzat alor juridikoa.

## 2. Nora joan

Hainbatez, esparru juridiko propioa sortu da euskararentzat, eguneroko legegintzan, arautegietan, herri-administrazioan, Zuzenbide Fakultateetan... horietan guztietan da ageriko eta erakusgai. Halako tokitxoan erdietsi duela esan daiteke. Zinez habiatoki mugatua, sortzez baina, aldameneko hizkuntza juridiko ahaltsuaren itzulpenez bizi dena nagusiki, baina aldi berean, nortasun beregainekoa.

Horra hor, bada, UZTAROn egina eta egitekoa, prozesu honen lekuko eta zirikatzailea izatea, arian-arian teoria hutsa zena duela urte batzuk (Zuzenbidea euskaraz egitea) bizimodu praktikoa eta errealtate ukaezina bihurtuz eta zabalduz, Zuzenbidearen nolana hiko/norana hiko esparruak barneratuz.

Horretarako beharrezkoa zen tresna egokia, tresna linguistikoa, UZTAROn orrialdeetan doktrina juridikoaren lan eta agiriak modu duin eta jasoan agertu zitezen. Hortaz, Euskaltzaindiak euskara batua proposatu eta hor zegoen bistabistara hizkuntzaren estandarizazioa. Horren muintan, luze-zabal, Zuzenbidea euskaraz modu formal eta idatzikoetan gizarteratzeko osagaiak.

Alabaina, oinarriak bai, baina horren garatze bidean, ezin premiazkoagoa zen terminologia eta diskurtso juridikoa eraikitzea, lege, epai zein doktrina juridikoaren adierazpideetan. Hortxe UZTAROn zenbakiak, halakoak alerik ale garatu dituztenak, euskaraz corpus juridiko esanguratsua osatu arte.

Alferrik, ordea, halakoa, euskararen erabilera mundu juridikoa ziurtatzen ez bada. Horretan ere, jardun du UZTARO aldizkariak, hizkuntza-eskubideak defendatzen eta aldarrikatzen, hitzez zein ekintzez. UZTARO bera ere da horren frogarik irtenena, eskubide linguistikoak eta Zuzenbidearen alorrean euskarazko gune propioa praktikara eraman eta eramaten dituela, legelarien hurrengo belaunaldiei ere lekua eta aukera emanez, euskararen estatusa ez ezik, euskararen corpusa ere ontzen joan daitezen.

UZTARO aldizkariari dagokionez, argi esan daiteke badela euskalgintzan benetako erreferentzia, aldian-aldian giza eta gizarte-zientzietan euskaraz ikertzen eta argitaratzen dena bere orrialdeetara eramanez eta horretan jakin-mina dugun guztiengana hedatzen eta sakabanatzen. Arean ere, eduki akademikoak sortu ez eze, eskuz esku eramaten ditu, diziplinartekotasuna sustatuz eta bultzatuz.

Euskarazko *intelligentsia* baten beharretan omen dago euskara. Halakoa trebatzeko eta trinkotzeko aukera UZTARO aldizkarian. Bertan ere horretarako hari desberdinak bilbatu, lehen esandako diziplinartekotasunaren izenean, autore askoren usteak eta testuak bere orrialdeetan plazaratu eta plazaratzen direla. Beharbada , hortxe dago gako esanguratsua euskarari dagokionez, bertara biltzen baitira lekukotza berriztatzaileak, zuzenbidea eta hizkuntza elkartuz, dela iurilinguistikan, dela soziolinguistikan, dela gainerako kontuetan. Era berean, hortxe egundoko esparrua, lehen basamortua zena eta orain loratzen hasi dena.

Hitz bitan esateko, UZTARO aldizkariak landu du zin-zinezko corpus juridiko-linguistikoa, guztiz baliagarria dena eta izan daitekeena orain eta etorkizunean. Corpus linguistikoa alde batetik, estandar eta parametro linguistikoak betetzen saiatu delako, euskararen ikuspegitik testuen berrikuspen linguistikoa bermatuz eta euskara estandarraren eskabideak betez.

Corpus juridikoa, artikulua eta testuen berrikusketa zientifikoa eta akademikoa osatuz, egun horrelako aldizkari akademikoetan eskatzen dena egoki zertuz.

Berme osoko lana, beraz, eta etorkizunean ere, UZTARO aldizkariak aurrean duena, begien bistakoa baita Zuzenbidearen zereginak funtsezkoak izango direla Euskal Herrian eta honetan ere euskarak present eta partaide izan behar duela.

Horretan aritu da eta arituko da, ziur asko, UZTARO. Horretarako behar da, behar ditugu euskarazko Zuzenbidearen komunitatean bizi eta horren aldeko apustu nabarmena egiten dugunok, aldeaz eta moldez, giza eta gizarte-zientziak, Zuzenbidea barne; egunero, hileroko, urtero, gero eta euskaldunago, gero eta aurreratuagoak izan daitezkeen euskal gizartean.

Zorionak, beraz, UZTAROrentzat! Urte askotarako! *Ad multos annos !*

